



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek onartu egin dabe Bizkaian garraioaren Agintaritza bakarra sortzeko txostena

Bilbon, 2014ko ekainaren 26an.

Gaur, egunean, ekainaren 26an, alkartu dan Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako batzordeak, Bizkaian Garraioaren Agintaritza bakarra sortzeko txostena onartu dau, aldeko 8 botogaz (Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Talde Popularrak) eta kontrako 5 botogaz (Socialistas Vascos eta EH Bildu).

Onespenaren aurretik, ez dira onartu EAJ-PNV eta PP taldeek garraio txostenaren barruan adostutako agiriari Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak aurkeztutako zuzenketa eske biak eta EH Bilduk aurkeztutako lauak.

Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeak batzordean daukan bozeroaleak, Nerea Ahedok, txostenaren ondorioa, Herri Lan eta Garraioetako Sailari, Bizkaian Garraioaren Agintaritza bakarra eratzeko egin beharrekoak hasi daizan agintzea dala adierazo dau.

EH Bildutik, Aitor Torre bozeroaleak azaldu dau bere taldea bat datorrela Bizkaian Garraioaren Agintaritza bakarra sortzeko beharragaz, “baina gai nagusiak agintaritza horren eginbeharrak, helburuak, gizartearen partaidetzea eta tarifa arloko gizarte politikak” dirala esan dau.

Joaquín Colmenero Socialistas Vascos taldeko batzordekideak kritikau egin dau “EAJ-PNV eta PP taldeak aurretik akordio bat lortu izana, horrek txosten osoaren garapena markau dauelako eta aurkeztutako zuzenketa-eske guztiak baztertzerako errotu dauelako”.

Jesús Isasi Bizkaiko Talde Popularrak (PP) bozeroaleak, txostenaren aldeko botoa emon dauen arren, adierazo dau “guk oso argi geunkala hasieratik txostena ez zala beharrezkoa, legediak argi eta garbi ixten ebalako Bizkaian Garraioaren Agintaritza sortzea eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa desegitea beharrezkoa dala”.

AUTOBUS ZERBITZUA SANTA MARINAKO OSPITALERA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako batzordeak, Itziar Garamendi diputatu andrearen bitartez, Bilboko Udaleko Zirkulazino eta Garraio Sailagaz akordioa lortu dauela jakinarazo dau, lankidetzarako hitzarmena sinatzeko, administrazino biak arduratu daitezkan Bilbo eta Santa Marinako Ospitalearen arteko Bizkaibus A3521 autobus linearen finantzaketeaz.

EH Bildu taldeak eskatutako agerraldian adierazo dauenez, zerbitzu horreen prestazinoak daukan kostu ekonomikoaren %40 Aldundiak ordainduko dau, eta %60 Bilboko Udalak.

BIZKAIBUSEN EMAKIDA BARRIAK

Herri Lan eta Garraioetako foru diputatuak, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatuta, Bizkaibuseko lineen emakida barriei buruzko informazino be emon dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Gai horri jagokonez, emakida bakotxean balorazino hoberena jaso dauen eskintzari buruzko informazioa emon dau. Busturialdea-Lea Artibai izeneko emakidari jagokonez, 4 eskaintza aurkeztu ziran, eta balorazino hoberena Rutas del Cantábrico eta Transítia, S.L. enpresek osatutako Enpresa Taldearena izan da. Ezkerraldea-Meatzaldea izeneko emakidan, 3 eskaintza aurkeztu dira, eta balorazino hoberena Transportes Colectivos, S.A.U. eta Transítia, S.L. enpresek osatutako Enpresa Taldeak lortu dau. Enkarterri emakidara 4 eskaintza aurkeztu ziran, eta ondoen balorautakoa Encartaciones, S.A. enpresak aurkeztutakoa izan da. Txorierri-Mungialdea emakidari jagokonez, 3 eskaintza aurkeztu ziralara esan behar da, eta horreetako bat baztertuta geratu zan B gutunazalean, eta balorazino hoberena, Encartaciones, S.A. , Autobuses Vascongados, S.A. eta Autobuses de Lujua, S.L. enpresek osatutako Enpresa Taldeak lortu dau. Eta bukatzeko, Nerbioi-Irratia-Durangaldea izeneko emakidara eskaintza 2 aurkeztu ziran, horreetako bat baztertuta geratu zan A gutunazalean, eta balorazinorik onena Pesa Bizkaia eta Transportes Pesa enpresek osatutako Enpresa Taldeak lortu dau.

Bere agerraldian adierazo dau 2014ko martxoaren 19an eta 21ean, esleipena gauzatzeko aurkeztu behar daben dokumentazio eskaerea egin jakela ondoen balorautako eskaintzak aurkeztu dituen enpresei edo enpresa taldeei. Gehienez 6 hilebeteko epea daukie baldintza hori beteteko, beste hilebete batez luzatu daitekeana, administrazio klausula berezien pleguan aurreikusitakoa kontuan izanda. “Baldintza horreek beteten diranean, emakidak esleituko jakez ondoen balorautako eskaintzak aurkeztu dituen enpresei edo enpresa taldeei, eta horreek hilebeteko epea eukiko dabe soziedade kudeatzaileak eratzeko, eta soziedade horreekaz sinatuko dira zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuak. Halan, bost emakidetako bakotxaren haserako aktak sinatu eta gero, zerbitzu barriaren prestazioagaz hasi ahal izango da”, adierazo dau.

Emakida guztiak egun berean hasiko dira, eta, holan, egun batean une honetan indarrean dagozan emakidak amaituko dira, eta hurrengo egunean hasiko dira barriak. Garamendik azaldu dauenez, emakida barrietan 65 unidate barri hasiko dira zerbitzua emoten: 8 ibilgailu Busturialdea-Lea Artibai linean, 6 ibilgailu Enkarterrin, 14 ibilgailu Txorierri-Mungialdea emakidan eta 23 ibilgailu barri Nerbioi-Arratia-Durangaldea linean. 65 ibilgailu barri horreek erosteko gastu behar izan dan zenbateko osoa 12.853.820 eurokoa da.

Bukatzeko, beharginen subrogazioari jagokonez, “zerbitzua itxiko dauen enpresa guztiek eta bakotxak, enpresa bakotxaren enpresa batzordeakaz batera, emakida lortu daben soziedade kudeatzaile barrietara subrogauko diran beharginen zerrendea sinatu dabela dagoaneko” iragarri dau.

Parte hartzeko bere txandan, Aitor Torre EH Bilduko bozeroaleak emakida barrietan gertatuko dan behargin eta ibilgailu kopuruaren murrizketea kritikau dau. Ganera, emakida barriakaz Bizkaian enpresen monopolioa gertatzeko arriskua dagoala esan dau.

Socialistas Vascos taldeko Joaquín Colmenerok, ibilgailuek zaraten eta keen kontrola igaro beharra adierazo dau, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat inolako kosturik izan barik.

ORDAINKETAK TERMIBUSEKO EGUNGO GELTOKIA ERABILTEAGAITIK

Batzorde berean, “egungo Termibuseko Geltokia eta Garellanon egingo dan Geltoki Intermodala erabilteagaitik egiten diran ordainketei” buruz Bizkaiko Talde Popularrak (PP)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

egindako ahozko erantzun eskeari erantzunez, Itziar Garamendik azaldu dau une honetan bederatzi badia erabilten dirala Termibusen. Hileroko alokairuaren kostua 7.387 eurokoa da, eta urte osokoa 88.644 eurokoa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas aprueban el informe de la ponencia de creación de la Autoridad Única del Transporte en Bizkaia

En Bilbao, a 26 de junio de 2014.

La comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales reunida hoy jueves, 26 de junio, ha aprobado el informe de la ponencia de creación de la Autoridad Única del Transporte en Bizkaia con 8 votos a favor (Nacionalistas Vascos y grupo Popular Vizcaíno) y 5 votos en contra (Socialistas Vascos y EH Bildu).

Previamente se han desestimado las dos enmiendas formuladas por el grupo juntero Socialistas Vascos (PSE-EE) y las cuatro enmiendas de EH Bildu al documento presentado por PNV y PP en el seno de la ponencia de transportes.

La portavoz del grupo Nacionalistas Vascos (PNV) en la comisión, Nerea Ahedo, ha señalado que la conclusión del informe de la ponencia es instar al Departamento de Obras Públicas y Transporte a que inicie los trabajos necesarios para la constitución de la Autoridad del Transporte en Bizkaia.

Desde EH Bildu, su portavoz Aitor Torre, ha explicado que su grupo coincide en la necesidad de crear la Autoridad del Transporte en Bizkaia, “pero las cuestiones importantes son sus funciones, objetivos, participación social y políticas sociales en tarifas”.

El juntero de Socialistas Vascos, Joaquín Colmenero, ha criticado que “PNV y PP habían llegado a un acuerdo previo que ha ido marcando el desarrollo de la ponencia y culmina con la negativa a aceptar las enmiendas presentadas”.

Por su parte, Jesús Isasi, portavoz del grupo Popular Vizcaíno (PP), pese a su voto afirmativo al informe, ha señalado que “nosotros teníamos claro desde el principio que no hacía falta la ponencia porque el mandato de la legislación dejaba claro que hay que crear la Autoridad del Transporte en Bizkaia y disolver el Consorcio de Transportes de Bizkaia”.

SERVICIO DE AUTOBÚS AL HOSPITAL DE SANTA MARINA

El Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Diputada, Itziar Garamendi, ha informado que ha alcanzado un acuerdo con el Área de Circulación y Transportes del Ayuntamiento de Bilbao para la firma de un convenio de colaboración mediante el cual ambas administraciones compartirán la financiación de la línea de Bizkaibus A3521 entre Bilbao y el Hospital de Santa Marina.

En la comparecencia, solicitada a petición del grupo juntero EH Bildu, ha explicado que el coste económico que conlleva la prestación de los servicios será sufragado en un 40% por la Diputación y en un 60% por el Ayuntamiento.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NUEVAS CONCESIONES DE BIZKAIBUS

La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, a petición del grupo Popular Vizcaíno (PP), ha informado también sobre las nuevas concesiones de las diferentes líneas de Bizkaibus.

A este respecto, ha señalado sobre la oferta mejor valorada en cada una de las concesiones. En la concesión denominada Busturialdea-Lea Artibai, a la que se presentaron 4 ofertas, ha resultado la mejor valorada la Agrupación de Empresas formada por Rutas del Cantábrico y Transitia, S.L. En la concesión denominada Ezkerraldea-Meatzaldea, a la que se presentaron 3 empresas, ha resultado la mejor valorada la Agrupación de Empresas conformada por Transportes Colectivos, S.A.U. y Transitia, S.L. En la concesión denominada Enkarterri, a la que se presentaron 4 ofertas, ha resultado la mejor valorada la de la empresa Encartaciones, S.A. En la concesión denominada Txorierrri-Mungialdea, a la que se presentaron 3 ofertas, una de ellas excluida en el sobre B, ha resultado la mejor valorada la Agrupación de Empresas conformada por Encartaciones, S.A. , Autobuses Vascongados, S.A. y Autobuses de Lujua, S.L. Y, finalmente, en la concesión denominada Nerbioi-Irratia-Durungaldea, se presentaron 2 ofertas, resultando una de ellas excluida en el sobre A, y siendo la mejor valorada la Agrupación de Empresas conformada por Pesa Bizkaia y Transportes Pesa.

En su intervención ha informado que con fechas 19 y 21 de marzo de 2014 se realizaron a cada una de las agrupaciones de empresas consideradas como la oferta más ventajosa el requerimiento de documentación que deben presentar para proceder a la adjudicación. Para el cumplimiento de este requerimiento disponen de un plazo máximo de 6 meses prorrogable un mes más, de acuerdo con lo previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares. “Con el cumplimiento de estos requerimientos, se procederá a la adjudicación de las concesiones a las Agrupaciones de empresas, quienes deberán constituir en el plazo máximo de un mes las sociedades gestoras, con las que se firmarán los contratos de gestión de servicio público. Así, podrá llevarse a cabo el comienzo de la prestación del nuevo servicio con la rúbrica de las correspondientes actas de inicio de cada una de las cinco concesiones”, ha señalado.

Todas las concesiones se iniciarán el mismo día, de forma que un día finalizan las actuales concesiones y al día siguiente comenzarán a operar las nuevas. Garamendi ha explicado que en las nuevas concesiones se van a incorporar 65 unidades nuevas: 8 vehículos corresponden a Busturialdea-Lea Artibai, 6 vehículos a Enkarterri, 14 vehículos a Txorierrri-Mungialdea y 23 vehículos nuevos a Nerbioi-Irratia-Durungaldea. El importe total de la adquisición de estos 65 nuevos vehículos asciende a 12.853.820 euros.

Finalmente, respecto a la subrogación del personal ha anunciado que “todas y cada una de las empresas salientes han firmado ya, conjuntamente con los comités de empresa de cada una de ellas, el listado del personal que se va a subrogar en las nuevas sociedades gestoras concesionarias”.

En su turno de intervenciones, el portavoz de EH Bildu Aitor Torre, ha criticado el recorte de personal y de unidades en las nuevas concesiones. Asimismo ha señalado que con las nuevas concesiones existe riesgo de monopolio de empresas en Bizkaia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Desde el grupo Socialistas Vascos, su representante Joaquín Colmenero, ha expuesto la necesidad de que los vehículos pasen el control de ruidos y humos, sin coste para la Diputación Foral de Bizkaia.

PAGOS POR USO DE LA ACTUAL ESTACIÓN DE TERMIBUS

En la misma comisión, Itziar Garamendi ha respondido a la pregunta oral del grupo Popular Vizcaíno (PP) en relación a “los pagos por uso de la actual Estación de Termibus y la futura Estación Intermodal de Garellano”. La diputada foral ha explicado que actualmente se utilizan nueve bahías en Termibus con un coste de alquiler mensual de 7.387 euros y un total anual de 88.644 euros.